

Debako autostopistaren kasua

(Ikasbiletik hartua eta IKAn moldatua)

1- Inoiz beldurrik izan al duzu kontatu dizuten istorio batengatik? Entzun al duzu inoiz ahoz aho dabiltzan hiri kondaira beldurgarri horietako bat?

2- Zein hiri kondaira ezagutzen duzu? Otsateko psikofoniarena, Olagibel kaleko eraikineko mamuarena, Aihotz plazako eraikinean aurkitutako emakume enpalatuarena, Sakamantekasena, Zaldiarango mamu txirridulariarena... Komentatu ikaskideekin eta zerrendatu ezagutzen dituzuenak.

3- Ezagutzen al duzu Debako autostopistaren kasua? Entzun, jarraian, kondaira horren inguruko irratiantzepea.



1- Istorioa entzun baino lehen

1.3- Beldurra adierazteko espresioak: Euskaraz hainbat egitura dauzkagu beldurra adierazteko. Hona hemen adibide batzuk:

GauAK beldurra ematen dit
Beldur diot gauARI
GauAK beldurtzen nau
GauAREN beldur naiz

Gaez bakarrik ibiTZEAK beldurra ematen dit
Beldur diot gaez bakarrik ibiTZEARI
Gaez bakarrik ibiTZEAK beldurtzen nau
Gaez bakarrik ibiTZEAREN beldur naiz

Konta ezazu zein diren zure beldur ezkutuak. Zerk beldurtzen zaitu? Zeri diozu beldur? Saiatu beltzez nabarmendutako egiturak erabiltzen.

.....

.....

.....

.....

.....

1.2- Giroa: Beldurrezko istorio bat entzuteko prestatu behar duzu zeure burua. Kontakizuna bezain garrantzitsua da giroa. Oraintxe izango duzu aukera istorioari hurbilpena egiteko. Horretarako, zerrenda bat osatu dugu hainbat osagairekin. Zure lana izango da zure ustez istorioarekin zerikusia izan dezaketenak aukeratzea.

Pertsonaiak

- Apaiza
- Gidaria
- Lorezaina
- Neska gaztea
- Otoa

Lekuak

- Bihurgunea
- Errepidea
- Hondartza
- Logela
- Mendia

Eguraldia

- Eguzkitsua
- Elurtsua
- Euritsua
- Haizetsua
- Oskarbi

Eguneko unea

- Arratsaldea
- Eguerdia
- Gaua
- Goiza
- Goizaldea

1.3- Hiztegia: Osatu itzazu bikote egokiak.

Euskaraz		Esanahia	
1- Haize-bolada	8- Bitxilore	a- Margarita	h- Funeraria
2- Lur-jauzi	9- Ikaratu	b- Curva	i- Espantapajaros
3- Harrapakin	10- Hileta-etxe	c- Presa	j- Racha de aire
4- Hileta-auto	11- Bihotzeko, bihotzak jo	d- Tremendo-a	k- Asustar
5- Bihurgune	12- Txorimalo	e- Acordarse	l- Obstinado-a
6- Oroitu	13- Jainkoarren!	f- Coche fúnebre	m- Desprendimiento de tierra
7- Egundoko	14- Setati	g- Por Dios!	n- Ataque al corazón

2- Istorioa entzun

2.1- Entzun ezazu istorioaren lehengo zatia. Beldurrezko istorio gehienetan bezala, gurean ere, bukaera arte itxaron beharko duzu korapiloa nola askatzen den ezagutzeko. Entzun arretaz eta aukera ezazu hauen artean istorioaren bukaera ongien azaltzen duen irtenbidea.

Hainbat amaiera posible:

- Autostopistak hileta-autoko gidaria hil du bere familia hil zen leku berean.
- Hileta-autoko gidaria autostopista eta bere familia hil ziren bihurgune berean hil da.
- Hileta-autoko gidariak bere familia hil zen leku berean hil du autostopista.
- Hileta-autoko gidariak errepidetik paseatzen zihoazen bi pertsona harrapatu ditu.

Dena dela, baliteke zuk beste hipotesiren bat izatea. Asma ezazu istoriorako beste bukaera bat, eta gero konparatu benetakoarekin eta ikaskideek asmatutako bukaera alternatiboekin.



.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

2.2- Entzun orain istorioaren bigarren zatia eta konprobatu zerikusirik ote daukan zuk asmatutakoarekin. Komentatu ikaskideekin zein ote den asmatutakoen artean amaierarik onena.

2.3- Kontaketaren haria ordenatu. Gidariak egindako ibilbideari erreparatuko diozu, eta egin edo gertatu zaizkionak ordenatuz, trama bera berregiteko aukera izango duzu:

- Istripua izan du bihurgunean.....
- Ertzaintzak kontrolean geratu du.....
- Deba inguruko gasolindegian gasolioa bota dio autoari.....
- Gurpila lehertu zaio autoari.....
- Autostopista desagertu egin da.....
- Alkoholemia egin diote eta negatibo eman du.....
- Ia bikote bat harrapatu du errepidean.....
- Gasolindegian geratu da.....
- Hileta-etxetik atera eta Lekeitiorantz abiatu da hildako bat jasotzera.
- Autostopista bat-batean agertu da auto barruan.....

3- Zeure beldurrezko istorioa kontatu

Dagoeneko zeure beldurrezko istorioa kontatzeko garaia iritsi zaizu.

- 1- Har ezazu oinarritzat hasieran zerrendatu dituzuen hiri kondaira horietako bat.
- 2- Erabil itzazu giro beldurgarria sortzeko osagaiak, beldurra adierazteko espresioak eta hiztegi egokia.
- 3- Kontakizuneko ekintzak kronologikoki ordenatu eta denborazko lotura egokiak erabiliz josi.



.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

4- Beldurrezko istorioak entzungai

Beldurrezko istoriorik bururatzeko ez bazaizu, Ikasbilen [Hotzikarak](#) izeneko bilduma oparo bat daukazu. Horietako edozein entzun, eta ikaskideei kontatu ahal diezu... edo bestela, Gau Beltzeko lagunarteko bilera bat girotzeko ere egokiak izan daitezke...

<http://www.ikasbil.eus/web/ikasbil/irradi-nobelak->

[fitxa?p_p_id=56_INSTANCE_0Hhd&p_p_lifecycle=0&p_p_state=normal&p_p_mode=view&p_p_col_id=column-1&p_p_col_count=1&groupId=10138&articleId=298898](http://www.ikasbil.eus/web/ikasbil/irradi-nobelak-fitxa?p_p_id=56_INSTANCE_0Hhd&p_p_lifecycle=0&p_p_state=normal&p_p_mode=view&p_p_col_id=column-1&p_p_col_count=1&groupId=10138&articleId=298898)

ERANTZUNAK

Giroa

Pertsonaiak

- Gidaria*
- Neska gaztea*

Lekuak

- Bihurgunea*
- Errepidea*

Eguraldia

- Euritsua*
- Haizetsua*

Eguneko unea

- Gaua*

Bestelako osagaiak

- Autoa*
- Bourbona*
- Irratia*
- Zerraldoa*

Hiztegia

Haize-bolada	Racha de aire
Lur-jauzi	Desprendimiento de tierra
Harrapakin	Presa
Hileta-auto	Coche fúnebre
Bihurgune	Curva
Oroitu	Acordarse, recordar
Egundoko	Tremendo-a
Bitxilore	Margarita
Ikaratu	Asustar
Hileta-etxe	Funeraria
Bihotzeko, bihotzak jo	Ataque al corazón
Txorimalo	Espantapájaros
Jainkoarren!	¡Por Dios!
Setati	Obstinado-a

Amaiera aukeratu

Hileta-autoko gidaria autostopista eta bere familia hil ziren bihurgune berean hil da.

Kontaktaren haria ordenatu

- 1) Hileta-etxetik atera eta Lekeitiorantz abiatu da hildako bat jasotzera.
- 2) Deba inguruko gasolindegian gasolioa bota dio autoari.
- 3) Gulpila lehertu zaio autoari.
- 4) Ertzaintzak kontrolean geratu du.
- 5) Autostopista desagertu egin da.
- 6) Alkoholemia egin diote eta negatibo eman du.
- 7) Ia bikote bat harrapatu du errepidean.
- 8) Gasolindegian geratu da.
- 9) Autostopista bat-batean agertu da auto barruan.
- 10) Istripua izan du bihurgunean.